

ERAIKUNTZAREN SEKTOAREN DESKARBONIZAZIOAREN LIBURU ZURIA

Posted on 27/09/2024 by Naider

Category: [Albiste](#)

Tags: [Eraikuntza sektorearen Deskarbonizazioa](#), [Gipuzkoa](#), [Liburu Zuria](#)

Gaur, [Eraikuntza Sektorearen Deskarbonizazioaren Liburu Zuria](#) aurkeztu da. Argitalpen horretan, NAIDERek parte hartu du, [Build: Inn Eraikuntzaren Euskal Klusterrarekin](#) batera, eta [Gipuzkoako Foru Aldundiaren](#) finantzaketari esker izan da posible.

Aurkezpen ekitaldia [Naturklima, Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioaren](#) auditorioan egin da, eta Iraunkortasun Saileko diputatuak eta deskarbonizazioan erreferente diren enpresek parte hartu dute, besteak beste, [Heidelberg Materials](#)-ek eta [Campezo](#)-k.

NAIDERetik landu dugun Liburu Zuriak deskarbonizazio-neurrien katalogo bat eskaintzen du eraikuntza-sektorearen balio-kateko katebegi bakoitzerako, eta, horrez gain, berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketan eragiten duten merkatu-joera nagusiei buruzko araudia errepasatzen du.

Eskerrik asko Build:Inn-i NAIDERengan konfiantza izateagatik proiektu garrantzitsu hau garatzeko. Izan ere, Europako esparruan klima-alaketaren aholkularitzan erreferentea den enpresa gisa sendotzen jarraitzen dugu.

